

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Urdanpilleta Otegi

*Hernani,
Gipuzkoa
(1935-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Ereñozun jaio zen 4 senideko familia batean (gazteena zen bera). Ama Santamañakoa zuen eta aita Urkizukoa. Ama gazterik gelditu zen alargun. Migel 11 urte zituenerako pinu zulatzen hasi zen lanean, zuloko zentimoa kobratuz. 19 urterekin elektrokimikan hasi zen lanean eta 37rekin pakete banatzen hasi zen kamioi bat erosita. Aranoko Benta Berri auzora ezkondu zen eta han bizi izan zen geroztik.

Zintak

HER-061

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-09-22
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

Pasarteak

1. Ereñotzu egun tristeago lehen baino

- **Erref:** HER-061/002
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:44. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Baserri giroko auzoa izan da jatorriz Ereñotzu. Egun etxe franko altxa dute bertan, baina Migelek eskastia ikusten du auzoa, lehengo aldean.

2. Hiru baserri Ereñotzun

- **Erref:** HER-061/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Migelen hitzetan, hiru baserri besterik ez ziren Ereñotzun, bera haurra zela. Baserriak ematen zuenetik bizi ziren.

3. Baserriak ezin egungo merkatuan lehiatu

- **Erref:** HER-061/004
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Eguno baserritarrak oso zail du merkatuan lehiakor izatea, makineriari esker produktu merkeagoa lortzen duen hamaika baitabil bazterretan. Euskal Herriko zenbait tokitan makineria sartzea ezinezkoa da, oso zoru aldapatsua eta malkarra baita gurea.

4. Babarruna saltzen

- **Erref:** HER-061/005
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Migelen ama zena trenean joaten omen zen Tolosara, babarrunak saltzera, etxean asko egiten baitzuten. Lehorte izugarria izan zen urte batean, jendea hazitarako babarrun gabe geratu zen, eta Migelen amari garesti ordaindu omen zizkioten saltzeko zeuzkanak. Lakaia zer den azaltzen du.

5. Senide guztiak amari laguntzen

- **Erref:** HER-061/008
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lau senide ziren etxean. Migel zen gazteena, eta aita hila zen. Ama lagundu beharrak, baserriko lanetan azkar jartzera behartu zituen senide denak. Hala ere, umea beti ume, eta izaten zuten tarterik "gaiztakeriarako", Migelek dioenez.

6. Lau senide eta bizikleta bakarra

- **Erref:** HER-061/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:11:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

Laburpena:

Lau senide izanagatik, bizikleta bakarra zuten etxean: 'orbea' berde bat, aski koipeztatua, eta Migelek nahi baino gutxiago ibili zuena.

7. Harrapazka egunez, "propina"

- **Erref:** HER-061/010
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Seniderik gazteena mizke hazi ohi dela esaten bada ere, Migelen kasuan ez zen halakorik izan. Iniztorra ebakitzera joandako batean, zeregina jarri zien amak bi anai-arreba gazteenei: saski bete babarrun biltzea. Bertan bildutakoarekin bete beharrean, etxeko ganbaran lehortzen zeukatenetik bete zuten, ordea. Amak jakin zuenean "propina" (zigorra, alegia) ederra jaso omen zuten biek. Migel oraindik gogoratzen da.

8. Jokoan lau pezeta galdu

- **Erref:** HER-061/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:13:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Migel haurra zela, jokoan aritzeko ohitura omen zuten, kartetan: "Zazpi t'erdian". Egun batez, Migelek diru guztiak galdu zituen. Lau pezeta inguru. Dioenez, oraindik ez omen zaio tristura pasa.

9. Zortziehun pezetako belozipedoa

- **Erref:** HER-061/012
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:13:08. **Bukatu:** 00:13:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Bizikleta erosi eta etxeratu zuten aldian, kuadrilla bildu omen zen haren bueltan. Goizuetara joan eta han belozipedoa esaten omen zioten bizikletari.</p>

10. Kaleraino oinez

- **Erref:** HER-061/014
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:14:22. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Migel bakar-bakarrik bidaltzen zuten oinez enkarguak egitera, Ereñotzutik Hernaniko Kardaberaz kaleraino. Auto askorik ez zen ibiltzen orduan. Kezka bakarra, "Sakamantekas".

11. Aranora eta Goizuetara oinez

- **Erref:** HER-061/018
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:16:57. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

Lanean hasi arte ez zuen Migelek Arano eta Goizueta ezagutzeko aukerarik izan. Bertaratu zen lehen alditan, oinez iritsi behar izan zuen, ordea.

12. Ogi berria eta ogi lizuna

- **Erref:** HER-061/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:19:39. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Azpeitiko okin bat ba omen zen Aranon, ogi goxo askoa egiten zuena. Orduko ogia lizundu egiten omen zen egun batzuk utziz gero. Ogi berria jateko aukera, aldiz, ez omen zen egunero izaten.

13. Zizarra eta pitarra zer diren

- **Erref:** HER-061/021
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Zizarra eta pitarra zer diren azaltzen du Migelek.

14. Sagardotik edaten

- **Erref:** HER-061/022
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:21:23. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Urarekin nahasi gabeko sagardoa topatzen ez omen zen hain arraza izaten. Hala ere, haurrak zirela, bazekiten Migelek-eta inork ikusten ez zituela bukoari zipotza kendu eta sagardotik edaten.

15. Lehen bi taloak maistrarentzat

- **Erref:** HER-061/024
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:24:14. **Bukatu:** 00:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko gosetea gogoan du Migelek, nahiz eta euren etxean artoa, babarruna eta esnea baziren. Hala ere, herriko maistrarentzako izaten omen ziren etxean erretako lehen bi taloak, morroiak bizikleta hartuta eraman ohi zizkionak.

16. Maistra gaiztoa

- **Erref:** HER-061/025
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:25:58. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Fagollagako eskola esaten zioten batean ikasi zuten Migelek eta haren anai-arrebek. Tira, ikasi edo. Migelek dio maistrak jo egiten zituela.

17. Maistrak arreba jo

- **Erref:** HER-061/026

- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:26:27. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Migelek-eta gaztelaraz jakin ez, eta euskaraz egitea debekatua izaten zuten, gainera. "Gloria, gloria..." abestu behar izaten zuten eskolan. Maistrak Migelen arreba txikiena sudurretik odoletan utzi zueneko.

18. Eskolan egur-txikitzen

- **Erref:** HER-061/027
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Neskak eskulanetan eta mutilak egur txikitzen ari izan zirela dio Migelek.

19. Eskolan zer ikasi

- **Erref:** HER-061/029
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:29:32. **Bukatu:** 00:31:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Matematikako oinarriko eragiketak eta geografia ikasten zutela kontatzen du Migelek, baina hain genio txarreko maistrarekin, bizirik nola atera ziren ere ez daki ondo.

20. Hamaika urterekin lanean hasi

- **Erref:** HER-061/031
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:33:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Behin komunio handia eginda, eskola utzi eta lanean hasi zen Migel, hamaika urte zituela. Aitzurra hartu eta pinu-zuloak egiten jardun zuen. Hamar zentimo ordaintzen zioten zuloko. Lehendabiziko duroa irabazi zuenean ez omen zen bere galtzetan kabitzen; ez eta galtza luzeak jantzi zituen lehen aldian ere.

21. Kapritxorik ez

- **Erref:** HER-061/032
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:33:53. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lanean jasotako soldata etxean entregatu behar izaten zuen Migelek. Burutik pasa ere ez omen zitzaion egiten gasturen bat egitea.

22. Lapurtzeko gai ez

- **Erref:** HER-061/034
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:38:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Pobrea lagundu behar dela esan eta aberats bizi. Apaizak horixe egin izan duela dio Migelek. Meza-mutil ibili zen garaian izan zuen pezetaren bat edo beste lapurtzeko aski tentaziorik; egokierarik ez izan, ordea!

23. Mezako ardoa

- **Erref:** HER-061/035
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:38:07. **Bukatu:** 00:39:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Don Joakin apaizak tonto deitzen zien meza-mutilei, mezetan sobratutako ardoa edaten ez zutelako. Migelek dioenez, ederki ikasi zuten gero.

24. Errekan pozik

- **Erref:** HER-061/036
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:39:23. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Errekan uretan jostatzera eta igeri egitera sarritan joaten omen ziren, gustura asko. Auzotar bat presan ito zenekoa ere kontatzen du Migelek.

25. Neskak eta mutilak elkarrekin errekan

- **Erref:** HER-061/037
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen omen ziren errekan, eta tartean-tartean, baita biluzik ere. Hezkuntza sexualaz galdetuta, beraiek dena naturak ikasten zutela dio Migelek, inork gauza handirik azaldu beharrik gabe. Txistea ere kontatzen du, haurrak "Parisetik zetoze" eta.

26. Apaizak etxera bazkaltzera

- **Erref:** HER-061/038
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Heltzekoa eta taloa, horixe izaten zuten eguneroko bazkaria. Entsalada zer zen ez zekiten, eta jai egunetan, babarrun zuria prestatzen zuen amak. San Antonio egunez eta jai egun handitan, babarrunak txorizo edo urdaiazpiko pixka batekin eta oilar zaharren bat, eta postretarako budina edo arrozesa izan ohi zela gogoan du Migelek. Egun seinalatu horietan ogia eta ardoa ere eramaten omen zituen amak, izan ere, apaizak joaten omen zitzaizkien bazkaltzera horrelakoetan. Migelek dio sekula ez duela etxean apaizik aitzurrean ikusi, baina bazkaltzera baietz, horretara joaten zirela.

27. Apaizak etxean lotan

- **Erref:** HER-061/039
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:44:23. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Misioak herrira etortzen zirenean, Garizuma garaian beti ere, Santamañako Don Juan Peñagarikano apaizak beraiegan hartzen omen zuen aterpe. Misio garaian herrian ze giro izaten zen kontatzen du Migelek.

28. Bekatua bekatuaren gainean

- **Erref:** HER-061/041
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Migelek dio bere gazte garaian dena zela bekatu. Elizaren gainbehera elizgizonen jarrerari zor zaiola dio: ez omen zuten jakin predikatzen zuten guztiaren eredu izaten.

29. Garizuman hainbat debeku

- **Erref:** HER-061/042
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuma garaian bilerak egitea debekatua omen zen Nafarroan. Gipuzkoan ez, nonbait. Baina Gipuzkoan txistua jotzea eta jokoan ibiltzea ez omen zen libre Aste Santuan. Elizetako santuak zapi morez tapatzeko ohitura omen zen.

30. Tximeletak birigarroarentzat

- **Erref:** HER-061/043
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:49:39. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Natura » Fauna » Basoko animaliak

Laburpena:

Garizuman, hainbeste gauza debekatuta egonik, tximeletak harrapatzera joaten omen ziren gaztetan. Ondoren, tximeletak birigarroei ematen omen zizkieten jateko, eta hartara, txori kantari horiek mantentzeko modua egiten zuten.

31. Bola-jokorako zaletasuna

- **Erref:** HER-061/049

- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:59:41. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Bola-jokorako zaletasun handia omen zuen Migelek. Bola-tokia lagunen artean prestatzen omen zuten, bai eta birla eta bolak egin ere.

32. Kontrabandoan hasteko proposamenari uko

- **Erref:** HER-061/051
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:05:12. **Bukatu:** 01:07:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kontrabandoan hasteko aukera izan omen zuen Migelek, baina ez zien halako lanei sekula heldu, apaiz batek emandako aholkuari segika.

33. Kontrabandista batekin izandako sesioa

- **Erref:** HER-061/052
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:07:24. **Bukatu:** 01:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Behin bere lantegiko kargudun bati kontrabandoan aritzea leporatu zion Migelek, eta besteak ez zion halakorik esaterik onartu. Tira-bira hura izan eta hurrengo gauean bertan harrapatu omen zuten gizon hura kontrabandoan.

34. Osaba kartzelara

- **Erref:** HER-061/053
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:09:35. **Bukatu:** 01:11:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Guardia zibilek kontrabandoan zebilen osaba geratu zutenekoa kontatzen du Migelek. Pasadizo barregarria da, kartzelan bukatu zuen, baina.

35. Zegamako mikeletea

- **Erref:** HER-061/055
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:12:44. **Bukatu:** 01:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Migel kamioarekin garraioan ibili zen denboran mikeleteekin tratua izatea tokatu zitzaion. Zegamako mikelete handi bat du bereziki gogoan.

36. Zekorra erremolketik galdu

- **Erref:** HER-061/060
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:20:31. **Bukatu:** 01:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Abereak batetik bestera garraiatzen hasi zeneko pasadizoa da honakoa. Behinola, zekor pare bat erremolkean kargatu eta bidean bat galdu zuen Migelek. Onik berreskuratu zuen, ordea, eta gerora ez zen berriz ere deskuidatu.

37. Hiru duroko isuna gorotz usaiarengatik

- **Erref:** HER-061/061
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:24:13. **Bukatu:** 01:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Autoa gorotzez zikindua ibiltzen omen zuen Migelek, eta behin, Donostiako hiltegian, hiru duroko isuna jarri nahi izan zioten horregatik.

38. Aguazila zahato eske

- **Erref:** HER-061/063
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:28:56. **Bukatu:** 01:30:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Donostiako aguazil bat lagun zuten Migelek-eta. Behin, Donostian bertan, autoan ibiltzen zuten zahatoa medio gertatutakoa kontatzen du.

39. Ehizarako lizentziak guztiak ordainduta

- **Erref:** HER-061/066
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:33:02. **Bukatu:** 01:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Migelek esaten du, lehen, egun baino askoz ere txori gehiago zela. Iaz zozo bat besterik bota ez bazuen ere, urtero zintzo ordaintzen ditu ehizarako beharrezko dituen lizentzia guztiak.

40. Neska-laguntzea, ahal zela, denen bistan

- **Erref:** HER-061/069
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 01:35:50. **Bukatu:** 01:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Ettxera laguntza egiteko neskaren baten baimena lortzen zuen hura, bileran zen jende guztiaren aurretik pasatzen saiatuko zela kontatzen du Migelek.

41. Lau errenkada erremolatxa jorratu eta Aranora

- **Erref:** HER-061/070
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:36:14. **Bukatu:** 01:37:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Behin, Santiago egun batez, goizeko lauretan iritsi omen zen Migel etxera. Ama izugarri haserretu zitzaion. Migelek biharamunean Aranora joan nahi zuen bazkaritara, eta amak, horren jakitun, baratzeko lau errenkada erremolatxa jorratzeko baldintza jarri zion. Migelek amak jarritako lan guztiak egin zituen eta biharamunean Aranora joan ahal izan zuen neska-lagunarekin; bai eta ongi gozatu ere, berak kontatzen duenez.

42. Emaztea Benta Berrin ezagutu

- **Erref:** HER-061/071
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:37:46. **Bukatu:** 01:38:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Migelek Benta Berriko bilera batean ezagutu zuen gerora emazte izango zuena. Bilera haietara jende ugari biltzen zela dio.

43. Gaupasak Benta Berrin

- **Erref:** HER-061/072
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:38:49. **Bukatu:** 01:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ba omen zen bileretan gaupasa egiten zuenik, bi jai egun segidan tokatuz gero.

44. Benta Berriko bileren gainbehera

- **Erref:** HER-061/074
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:39:51. **Bukatu:** 01:41:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Jendeak bileretara joateari utzi zion pixkanaka. 1965 urtearen bueltan kokatzen du Migelek Benta Berriko bileraren gainbehera.

45. Kanpotarrei harrika

- **Erref:** HER-061/075
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 01:41:28. **Bukatu:** 01:41:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bileretan, neska-laguntzea egiteko garaian, herrikoak ez ziren mutilei harrika ekiten omen zieten Benta Berriko zenbaitek. Beste herri batzuetan ere halaxe izaten zela dio Migelek.

46. Harrapazka zer zen

- **Erref:** HER-061/076
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:41:59. **Bukatu:** 01:44:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Harrapazka eguna Irailaren 10ean izaten zen. Udalak herri lurretako iniztorra ebakitzeko baimena ematen zien herritarrei. Migelek egun horretako antolaketari buruzko hainbat kontu esaten ditu.

47. Ereñotzuko hizkera eta ingurukoak

- **Erref:** HER-061/079
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:45:49. **Bukatu:** 01:47:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hernaniko Ereñotzuko eta inguruko herrietako hizkeren artean alde nabarmena dago. Migel konturatuta omen dago, biblian azaltzen diren hitz batzuk Goizuetan esaten direla, eta hortik ondorioztatu du ez dela hizkera aldrebesa izango hangoa. Migelentzat Ereñotzuko hizkera da denetan garbiena, hartan dena ulertzen baitu. Bizkaiera ez omen du ondoegi entenditzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com